

MEREZITAKO URREZKO LUMA JULEN URKIZARI

***KARMEL* aldizkariaren egun handia**

Aurreraxeago jakitera emango dugun bezala, 2013ko ekainaren 3an jaso zuen Julen Urkizak Urrezko Luma Bilboko Liburu Azokan baina aipatu merezimenduzko saria jaso aurreko larunbatean sumatu zen, jada, jai-giroa Markinako karmeldarren egoitzan.





Izan ere, maiatzaren 19an, urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, *Karmel* aldizkariko idazleok Markinako karmeldarren etxean bildu ginen eguerdiko ordu batean. Urteko bazkariaren eguna zen. Idazleok, ahal den neurrian behintzat, huts egiten ez diogun gonbitari erantzuteko unea.

Ohikoa den bezala, bazkariaren aurretik egiten den aurreko bileratxoan, Julen Urkizak, aldizkariaren zuzendaria den alde-tik, hara bildutakooi ongi-etorria egin eta bileran landuko genituen gaiak aipatu zituen. Eta, berehala, denok ere familiaki-deak bagina bezala, bertaratu ez zirenen berri eman zuen, haien ezin-etorri erantzunak jakitera emanez. Penaz aipatu ere, beste konpromisoren bati erantzun behar izan zutenen izenak. Maiatzaren bukaera alderako erditze-data zuen idazle baten sms mezua jaso genuen orduantxe bertan, bilera-bazkarira hurbildu ginen guztiok agurtuz, eta Luis Arostegik egin zuen ondotik bere azken liburuaren (“Hölderlinen olerki guztiak”) aurkezpena, guztion gozamenerako, liburuko poema batzuk irakurriaz.

Ez zen hor bukatu, ordea, bilera. Baizik eta bazkaltzera joan aurretik eman zitzaigun aditzera albisteak: ekainaren 3an, Bilboko Liburu Azokan, Julen Urkizak Urrezko Luma jasoko zuen *Karmel* aldizkariaren izenean.

Egun hartan, bestelakoetan bezala, Iturretara joan ginen bazkaltzera, eta urtero eskaintzen zaigun jan-edana gogoan izatekoa bezalakoa izaten den arren, egun hartan ez dut uste okertzen naizenik esatean, sabela betetzera baino areago, barruan generaman poza partekatzea joan ginela.

Kronikatxo hau sinatzen duenari eskaini zion *Karmel* aldizkariaren zuzendaritzak ekainaren 3ko aurkezpena egitea, hau da, *Karmelen* ibilbidearen eta Julen Urkizaren zuzendaritzaren gainean egindakoak biltzea. Eta Iturretako bazkarian Patxi Uribarrenek emandako gomendioak eta hitzak kontuan hartuta idatzi dira lerrook.

Halaxe bada, ekainaren 3an, Euskal Herriko puntu ezberdinetatik urreratu beharra izan arren, denok heldu ginen sasoiz





Areatzara. Hamaika t´erdiak (aurkezpen ordua) baino ordu erdi lehenago, Julenek eskatu bezala, zernahi jasota ere, lasai ibiltzeko eta aurkezpenera ondo heltzeko. Hamaiketan, beraz, denok geunden elkarren zain. Irribarrea ezpain artean ezin ezkutatuta. Eguraldia fresko samarra ekaina izateko baina ez barruan generaman beroa hozteko adina.

Bilboko Liburu Azokaren aurkezpen karpapera hurbildu ginen *Karmel* aldizkariko idazleok elkar agurtu eta laster batera hurbildu zitzaigun Asier Muniategi jauna, liburu azokaren anto-

latzailea. Eta berak aurkeztu zigun Gonzalo Olabarria jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaria, eta berak eman zigun baita ere aurkezpen lanetan aritzeko protokoloaren berri.

Ordua iritsi zenean eta kazetariak euren lekuak hartu zituztenean, Asier Muniategik hartu zuen hitza eta aurkezpen orokorra egiteko ardura eta kronikatxo honen idazleari egokitu zitzaion egunari zegozkion gorazarre-hitzak harilkatzea:

Gorazarre-hitzak

Egun handia da gaurkoa KARMEL aldizkariarentzat eta bere zuzendaria den Julen Urkizarentzat, merezia duten aitortza jasotzen dutelako biek ala biek; euskara eta euskal kulturaren alde egindako lanagatiko eskerra. Finean, Julen Urkizak azken urte luze hauetan egindako lanak izan duen oihartzuna eta eraginaren erakusgarri.



Niri, KARMEL aldizkariaren izana eta egina kontatzea egokitu zait, hemen gauden guztiok argiago baloratu ahal dezagun, KARMELen ibilbide oparoa eta Julen Urkiza zuzendariaren eragina hain arnasa sakoneko egitasmo honetan.



Karmel zer den

KARMEL aldizkaria zer den azaldu beharko banu, esaldi labur batean, EUSKAL KULTURAREN LEIHO bat dela esango nuke. Leiho irekia.

Oraintxe jakitera emango dugun bezalaxe: IREKIA idazle berriei, IREKIA erabilitako euskara motei, IREKIA gaiei dago-kienean, IREKIA egungo teknologiei, IREKIA hausnarketa-bide berriei, IREKIA aldizkariaren inguruan sortu diren beste egitasmoei...

1931n sortu zenetik, historiaren joan-etorri latzei hainbat al-
ditan aurre egin behar izan diona eta sortu zeneko helburu na-

gusiei zintzo, egungo gizarteari eta irakurleari egokitzen jakin duena.

Karmel aldizkariaren aldiak

KARMEL aldizkariak 3 aro nagusi ezagutu ditu bere ibilbide oparoan:

1. Aroa (1931-1936): “Karmengo Argia” izenarekin sortu zen 1931ean eta 1936 arteko bizitza izan zuen.
2. Aroa (1951-1956/1957-1961): “Karmengo Amaren Egutegia” izena hartu zuen eta, egutegi formatoan, urtean behin argitaratzen zen. Bigarren aro honetan baina 1957tik 1961era bitartean, aldizkari bihilabetekari bilakatu zen eta garai honetan erabaki zen “Karmel” izena jartzea. Alabaina, 1961ean Gobernuak debekatu egin zuen eta isilean mantendu zen 1970. urte arte.



3. Aroa (1970-1983/1984-...): hirugarren aro honetan ere bi aldi bereiz ditzakegu: lehena, 1970tik 1983ra bitartekoa: isilunearen ondoko urte latzak zeinetan eta berriro aldi-zkaria argitara eman zen. 1975. urtean, bilera esanguratsua egin zen Karmeldarren ordenan bertan KARME al-dizkariaren nondik norakoak zehazteko eta arrazoi hauek eman ziren bere jarraipenerako:
1. Euskal Kultura sustatzea
 2. Euskal idazle berriak bultzatzea
 3. Euskal Herrian karmeldarren eragin gunea indartzea



1974tik 1983ra bitartean Aita Carmelo izan zen aldizkariaren zuzendaria eta garai honetan aldizkariak zailtasun ekonomiko handiak bizi izan zituen, etorkizuna zalantzan jartzeraino.

Egoera honi aurre egin nahian, Probintzialak Julen Urkiza izendatu zuen KARMEL aldizkariaren zuzendari (1984ko ekainaren 28an), hirugarren aro honen bigarren aldiari hasiera emanez. Urkiza ikasketak Austrian egin eta Euskal Herrira gogotsu etorri berria zen. Lanerako zuen kemenaz eta ikerketarako trebetasunaz jabeturik aldizkariaren ardura osoa eman zion.

Zuzendari izendatu bezain laster, Julenek hain berezkoa duen lanerako grina erakutsiz, galdutako denbora berreskuratu nahi izan zuen eta urteko azken lau hilabeteetan, urteari zegozkion lau zenbakiak argitaratzea erabaki zuen: ale bikoitza irailean eta ale bikoitza azaroan.

Julen Urkizak, ate berriak ireki nahi izan zizkion aldizkariari. Eta ez bakarrik aldizkariari. Baizik eta, honekin batera, euskararen aldeko liburugintzari. Europan zehar beste aldizkari batzuen inguruan sortutako kultur produkzioaren bidea jarraitu nahi izan zuen.

Zuzendariaren ekarpena

Karmel aldizkariaren zuzendari berriak, batez ere, jite berria ekarri zuen:

- * Argitalpenerako **diru-iturriak** lortzen ditu zuzendari berriak.
- * **Aldizkakotasuna** egonkortu egiten da, hau da, hiruhilabetekari bilakatzen da aldizkaria.
- * Orduan eratzen da, baita, **Erredakzio Kontseilua** zeinak aldizkariaren egonkortasuna dakarren.

Egiturazkoak izan daitezkeen aldaketa hauetaz gain, edukari eta formari dagozkionak ere abian jarri ziren, hala nola:





- * **Idazle berriei ateak irekitzen** zaizkie (zuzendaritza eta kolaboratzaileen artean 6 lagun izatetik, 3. aro honetan, 120 baino idazle gehiagok parte hartu du aldizkarian).
- * **Euskararen erabilerari dagokionean**, zuhurtziaz eta jakintzaz jokatu zuen zuzendari berriak: zein euskara mota erabili behar zen zehaztu beharrean, askatasun osoa eman zitzaion idazleari nahi zuen euskararen idazteko (euskara baita zein euskalkietan). Idazle bakoitzak erabakitzen du nola jokatu. Eta Zuzendaritzak ahaleginak egiten ditu euskara mota guztiek izan dezaten aldizkarian leku, zenbaki bakoitzeari oreka mantenduz.
- * **Gaiei dagokienean** ere, bost arlo nagusi eskaintzen ditu aldizkariak (Kultura, Gizartea, Eliza, Iritzia eta Literatura) eta idazleari aukera ematen zaio bakoitzak gogokoen duen alorrean jarduteko. Irakurleari, batez ere, kultura eta gizarte gaien gaineko gogoeta-gaiak eskaintzen zaizkio.





Julen Urkizak, 1984tik aurrera, urtean aldizkariaren 4 zenbakiak argitaratzeaz gain, ekarpen handiko beste hiru liburu sorta sortu eta kudeatu ditu:

- * **Karmel-Sorta (1989-):** KARMEL aldizkariko idazleen idazkiak jasotzen dira bilduma honetan. Bilduma hau berez sortu zen. 80. hamarkadan KARMEL aldizkariaren zuzendariari Lino Akesolo eta Santi Onaindiaren obra poetikoa aztertu eta argitaratzea otu zitzaion eta halaxe eman zion hasiera aldizkariko idazleak ziren idazleen lanen bildumak argitaratzeari. 15 lan handik osatzen dute bilduma.

* **Karmel Lekukoak (1996-):** karmeldarren lanak edota bizi-tza jaso ohi dira sorta honetan. Bilduma hau Lisieux-eko Teresa Jesus Haurraren heriotzaren 100. urteurrenaren karira sortu zen. Honen ganean landu eta argitaratu zen lehen liburua eta, guztira, 6 liburuki argitaratu dira.

* **Vasconia Sacra (1995-):** elizaren historiaren inguruko lanak biltzen dituen bilduma. Azpimarratzekoa da sorta honetan Julenek Euskal Herriko Elizaren Historia jasotzeko egin duen lan erraldoia.

Hiru sorta hauekin, Julen Urkizak ekarri handia egin dio euskarari, euskal kulturari eta Karmeldarren ordenari.



Lorpenak laburrean

Egindako bideari begira jartzen baldin bagara, lortutako emaitza nagusien artean ezin aipatu gabe utzi honako hauek:

1. Gaur egun, KARMEL aldizkaria etorkizuneko **euskal kulturaren erreferentzien artean** kokatzen zaigu. Hau da, gizatasunean eta balioetan oinarritutako kulturaren babeslea.
2. **Euskara ikertzen**, egokitzen eta zabaltzen saiatzen da, gizartearen premia berrietara egokitzeko.
3. **Idazle berriei aukera** eman die beren lehen idazlanak KARMELen argitaratzeko eta literaturaren munduan ibilbidea egiten hasteko.
4. **Idazle handien habia** da KARMEL, baita Euskaltzain eta Euskaltzain urgazleena ere.
5. **Teknologia berriak** ere baliatu ditu KARMEL aldizkariak irakurleari aldizkaria eta aldizkariaren inguruan sortutako lanak ezagutzeko erraztasunak eskaintzeko; esaterako, 1931tik 2007ra bitarteko aldizkari guztiak digitalizaturuta jasotzen dituen **DVDa**; eta **web orria**, zeinetan aldizkariaren hemeroteka kontsultatu ahal den, KARMEL bildumen katalogoa, azken aldizkariko artikuluak irakurri, eta KARMEL aldizkariko idazleen berri jaso.
6. Eta aldizkaria irakurlearen gogoko egin gura horretan, estetika kontuetan ere, bi hobekuntza txertatu dira: batetik, 227. zenbakitik aurrera (1999. urtea), **mantxeta aldatu** zitzaion, hizki mota modernoagoa erabiliz, azala deigarriagoa egiteko; eta, bestetik, testuak aberastera etorriko ziren **argazki eta marrazkiak** gehitzen zaizkio aldizkariari, lehenagotik ez zuten protagonismoa irabaziz.

Julen Urkiza, Karmel aldizkariaren zuzendari

Julen Urkiza Txakartegi, Ondarroan jaioa, 1944ko apirilaren 1ean, KARMEl Aldizkariaren zuzendaria 1984tik gaur egunera, "gizon handia" da: Batxiller ikasketak Zornotzan, Nafarroako Villafrancan eta Markinan egin zituen, karmeldar izateko asmoz 1961ean Larreako nobiziatuan sartu zen eta bere profesa 1962an egin zuen; 1963ko iralean Vienara bidalia izan zen hango unibertsitatean filosofia eta teologia ikasketak egiteko eta 1972an Teologiako Doktor titulua eskuratu zuen. Diakonotzako Sakramentua 1969an hartu zuen eta baita abadetzakoa ere Vienako karmeldarren elizan. Aipatu ikasketez gain, Vienan lan asko egin zuen Urkizak: eskolan urte bi erlijioa irakasten (1974-1975), "Legio Mariae"ko taldeen zuzendari (1969-1981), komentuan elizako apostulautza, liburuzain, artxibatzaile eta ordena barruko aldizkariaren sortzaile eta zuzendari ("Karmel in Bewegung", 1977-1981) eta, batez ere, historia ikerketak egiten (1975-1981).

Lan guzti honek prestatu zuen Euskal Herrira bueltatzearakoan, KARMElen zuzendaritzarekin batera beste hainbat lan sortu, ikertu eta argitara emateko.

18 urte Vienan bizi izan ondoren, 1981ean Larrea-Zornotzako komentura hurbildu zen (1982-1993). Hasierako sei urteetan (1982-1987) Etxanoko parrokiaren ardura eraman zuen. 1984tik aurrera KARMEl aldizkariaren zuzendaria da. 1989an "Karmel Sorta" sortu zuen, 1995ean "Vasconia Sacra" eta 1996an "Karmel Lekukoak". 1993tik aurrera, Markinako Karmeldarren komentuan ari da bertako priore-zerbitzua betetzen.

Gizon handia dela esan dugu arestian, ez iraganean ikasi duenagatik bakarrik baizik eta, batez ere, gaur egunean erakusten digun lanerako daukan gaitasunagatik, ikerketarako adimenagatik, euskara eta euskal kultura zabaltzeko garragatik, liburu eta idazlan berriak proposatzeko argitasunagatik, helburuak finkatu eta horiek lortzeko indarragatik (50 liburu



baino gehiago idatziak, ehunka artikulua argitaratuak), eta... KARMEL aldizkariaren inguruan idazle familia bat osatzen jakin duelako, eskuzabaltasunez jokatzuz, konfiantza eskainiz, bakoitzari bere balioa agertuz eta euskararen eta euskal kulturaren zabaltze-lan honetan, bidea egiten lagunduz.

Hau guztia egiteko, berak, estrategia erraza eta xumea erabili izan du eta fikziozko elkarrizketa labur baten bidez jakitera ematen saiatuko naiz:

–Zuk “XXX” gaiaz asko dakizu ezta? –galdetzen dio Julenek idazle berriari.

–Beno... –erantzuten du idazleak (ikertzaileak, soziologoak, filosofoak, edo dena delakoak), zer esan ez dakiela eta Julenek bere berri nola ote dakien asmatu ezinik.

–Bai, bai, bai –jarraitzen du Julenek ezpain artean bere irribarrea (sekula inori gaitzik egin ez dion horrena) eta bere begi txikiak (betaurrekoen atzetik) idazlearenetan irmo finkatuz-, niri txori txiki batek esan deust “XXX” gaiaz asko dakizula... eta, gainera, fin idazten dozula.

Eta orduan, idazle izango dena, gizon handi honen aurrean bere burua txiki-txiki sentituta, lotsaz beteta, zera esatera baino ez da ausartzen:

–Beno, ni ahalegindu besterik ez naiz egiten eta lan asko eginaren eginenez, ba, emaitzak heldu egiten dira.

–Ba idatzi, idatzi Karmelerako zure emaitza horrek eta maiatzean egiten dugun idazleen arteko bazkarian zu bezalako idazleak eta idazle handiak ezagutzeko aukera izango dozu –gonbitea zabalduz azkentzen du Julenek.

Eta Julenek, besteko barik, KARMELen idatziko duen beste arrain handi bat arrantzatzea lortuko du. Aukera ematen dio ekarria daukanari, dakien hori plazaratzeko; profitatzen du KARMEL aldizkaria eta KARMELen irakurleak aberasteko; eta lortzen du, euskarari eta euskal kulturari leiho berri bat eskaintzea.

Aintzatespena deitzen zaio honi. KARMElek bere idazleei eskaintzen diena eta euskal gizarteak gaur Julen Urkizari aitortzen diona.

Mila esker zuen arretagatik.

* * *

Ondoren, Julen Urkizaren hitzak jaso ahal izan zituzten Areatzara gerturatutako bai kazetari eta bai gonbidatuek ere. Hona hemen, laburki, bere hitzak:

“Eskerrik asko, Ana, zure hitzaldi gozoagaitik.

Aurten Bilboko Liburu Azokan *Karmel* Aldizkariari emoten jako *Urrezko Luma*. Lehenengo eta behin eskerrik beroenak Azoka honetako arduradunei, *Karmel* aldizkariagan pentsau, eta ikusi eta onartu dabelako bere historia luzeko lana. Ni hemen *Karmelen* zuzendari lez agertzen naz, azken 30 urteetan zuzendaria.





Urrezko lumaren merezimendu honetan sartzen doguz *Karmel*-en zuzendari guztiak eta batez ere bere idazleak, mota askotako idazleak. Zelan ez gogoratu gaur, zuzendari eta idazleen artean, Santi Onaindia, Lino Akesolo, Karmelo Zubizarreta, etab. Eta batez ere gure euskal idazle eta olerkari zintzoak, gizon eta

emakumeak, gazte eta helduak, aldizkari honetan idazle lez egin direnak eta bere maila erakutsi dabenak...

Karmel urteetan zehar aurrera eroaten lagundu dabenak badagoz batzuk esker onez aipatzekoak, batez ere idazle kontseilukoak: Luis Baraiazarra, Ana Urkiza, Patxi Uribarren, Luis Arostegi eta Andoni Olea; eta Juan Mari Arrizabalaga aldizkariaren azalak egoki prestatzen eta *Karmel* aldizkariako Web orria eroaten dauana...

Baina momento honetan zelan ez gogoratu esker onez mundu honetatik joandako gure olerkari batzuen izenak, eta gero *Karmel*-ek hareen olerkiak argitaratu dituenak: Balendin **Aurre Apraiz**, Sabin **Muniategi**, Angel **Bidaguren**, eta abar; baita idazle askoren artean aipatzekoak diranak: Gabirel Jauregi, Augustin Zubikarai, Eusebio Erkiaga, Gotzon Garate, etab.

Eta gaurko idazleen artean, hemen aurkitzen direnak aipatu nahi dodaz: Andres Urrutia (Euskaltzain-buru), Patxi Juaristi,



Miren Agur Meabe, Xabier Kaltzakorta, Jose Luis Goikoetxea, Jabier Arrieta, Pilare Baraiazarra...

Entzun dogu Anaren itzaldian Karmelen historia. Barriro gogoratuz, *Karmeli* bere nortasuna emon deuten ikuspuntu batzuk aipatu nahi neukez:

- a) Aldizkariaren helburu bat *idazleak sortzea* izan da; eta asko bertan jaio eta bizi izan dira idazle lez.
- b) Sasoiz eta zintzo atera da, denbora onetan eta txarretan.
- c) Zabalik egon da, eta dago...
- d) *Karmel* aldizkariak hasiera-hasieratik kultura eta gizarte-ko gaiak aztertu izan ditu eta irakurleei gogoetak eskaini. Eta arlo hau sistematikoki zaintzen dau.
- e) Gehienbat orain euskara batua erabili arren, euskalkiak ere euren lekua aurkitzen dabe Karmel-en; eta euskara egokia erabiltzea bultzatzen da.

Eta helburu honekin jarraitzeko asmoa dogu, idazleen laguntzaz eta baita Bizkaiko Aldundiaren laguntzaz.

Amaitzeko, barriro eskerrik beroenak Azoka honen ardura-dunei, eta hemen agertu zarien guztioi, Eskerrik asko!"

Ondokoak

Eta, ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaria den Gonzalo Olabarria jaunaren eskutik, txalo artean, Urrezko Luma jaso zuen Julen Urkizak.

Momentu gogoangarria Julen Urkizarentzat eta *Karmel* aldizkariko idazle guztiontzat.

Kultura Zuzendariak saria eman ostean, Azokaren agendak beste aurkezpen bat zeukan programatuta eta berehala atera ginen karpantik. Kanpoan, Julen Urkizari elkarrizketa zaparrada egin zioten komunikabide askotarikoek eta gainontzeko idazleok,



elkar zoriontzeko beta izan genuen hain ibilbide joriko aldizkariaren parte izateagatik eta, ezin ezkutatu harro sentitu ginela, prozesu luze horren kate-begi (nimiñoa bada ere) izateagatik.

Konplitzekoekin bete ondoren, Abando jatetxera gidatu gintuzten antolatzaileek eta, han, bapo bazkaldu genuen saritu, idazle eta aurkezpenera hurbildutako guztiok. Mahai ederrera bildu ginela esan liteke, bai jan-edanari dagokionean eta, zer esanik ez, luma fina izateaz gain, hizketarako arantzarik ez daukaten kide maiteez inguratuta.

Argazki andana atera genuen guztiok ere urrezko luma eskuetan genuela. Julen Urkizari sariaren jabetza lapurtzea lortu genuen guztiontzat ere loriazkoak izan ziren minutu labur bazuetan.

Bazkariak eta lagun arteak arratsaldeko bost t´erdiak inguruan izan zuen bukaera, Pilare Baraizarraren zorion bertsoak irakurri eta kantatu ostean.

Karmel aldizkariko idazleok, idazle hasi berri eta euskal literaturan erreferentziazkoak direnak, euskaltzainak eta euskaltzain urgazleak, Euskaltzaindiko lehendakaria den Andres Urrutia buru genuela, sentimendu umil batek harrapatu gintuen: hain maite dugun euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lan txikiak duen garrantzia handiaz jabetu ginen; eta sentitu genuen, euskal erakundeen errekonozimendu merezitakoak, orain arteko bide berean lanean jarraitzeko gogoz janzten duela bai saritua eta baita saria partekatzeko ausardia izan genuen gainontzekook.

Esan bedi, bide batez, arrazoirik ez zitzaigula falta.

Ana Urkiza